

INFORMAZIO OHARRA

Iñaki Martínez de Lunak Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona 2023 saria jaso du

- *Eusko Ikaskuntzako lehendakaria eta Arabako diputatu nagusia bat datoz Araban euskara biziberritzeko egin duen ekarpen garrantzitsuarekin*
- *Soziologo eta soziolinguistikoak adierazi du globalizazioa, migrazioak edo eremu digitala kontuan hartuko dituzten estrategien bidez hizkuntza bultzatzearen beharra*

Gasteiz, 2024ko apirilak 11. Eusko Ikaskuntzaren 2023ko Manuel Lekuona Saria jaso du Iñaki Martínez de Luna soziologo eta soziolinguista arabarrak, ostegun honetan, apirilaren 11n, Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultur Etxean.

Arabako diputatu nagusi Ramiro Gonzálezek eta Eusko Ikaskuntzako lehendakari Ana Urkizak hartu dute hitza, José Miguel de Barandiaran Fundazioko lehendakari Abel Ariznabarretak epaimahaiaren erabakia irakurri ondoren. Ekitaldia Edurne Begiristain kazetariak gidatu du.

Hitzaldian, Ana Urkizak Iñaki Martínez de Lunaren argazki gizatiar eta intelektuala atera du, bost alderdiren bidez: euskararekiko konpromisoa, bere ibilbide osoan zehar izan duen bokazio berritzailea, erakundeen eta proiektuen sustatzaile gisa egindako lan nagusiak, Eusko Jaurlaritzari atxikitako soziologo gisa egindako lan profesionala 1982tik erretiroa hartu zuen arte, eta irakaskuntzan mende laurden baino gehiagoan egon izana EHU-n. Eta Iñaki Martínez de Luna 2023 Manuel Lekuona Sari gisa egiaztatzen duten merezimenduak laburbilduz, honela definitu du: “Begirada zabaleko intelektual bat, hizkuntza-egitateaz ikuskera integrala duena. Gaur egungo euskal soziolinguistikako eragile nagusietako bat, teorialari eta ikertzaile gisa. Hizkuntzaren alorreko lider eta bultzatzaile bat. Eta, gainera, erreferente baliotsua da Euskal Herriaren aurrerapen sozial, zientifiko eta kulturalaren alde lanean dihardugun guztiontzat”.

Manuel Lekuona Saria irudikatzen duen Remigio Mendibururen eskultura jaso ondoren, Iñaki Martínez de Lunak bere esker ona adierazi du. Gasteizen bizi izan zuen haurtzaroa gogora ekarri du, gazteleraz hitz egiten zuen garaikoa, bai eta nola aurkitu eta ikasi zuen euskara bere gaztaroan. Garai horretan, joan den mendeko 70ko hamarkadan, euskararen indarberritze-aroa izan zen, lehenik herri-gogoak bultzatuta eta geroago bulkada instituzionalarekin. Gaur egun, gizarte-

baldintza berriek euskararen egoera aztertzea eskatzen dute, gure gizartearen erronka nagusiei erreparatuko dioten estrategiekin berrabiarazteko, hala nola globalizazioa, migrazioak edo eremu digitala. Gizarteren euskararekiko atxikimendua aktibatzea eta zabaltzea funtsezko zeregina izanik, horrekin duen konpromisoa berretsi du Iñaki Martínez Lunak.

Azkenik, Arabako diputatu nagusiak, Ramiro Gonzálezek, Iñaki Martínez de Lunak Araban euskara biziberritzeko egin duen ekarpena azpimarratu du; izan ere, 1980an %4 ziren euskara ulertu eta erabiltzeko gai zirenak, eta gaur egun %50 baino gehiago dira. Sariduna “euskaltzale amorratua” dela esan du diputatuak, eta errealitateari buruzko ikuspegi zabal eta sakonarekin lan isil, apal eta etengabea egin duela, errespetuz eta beti positiboki. Gonzálezek berak eskertu nahi izan dio hamasei urtez Arabako Foru Aldundiko Euskararen Aholku Batzordean parte hartu izana. Eta Martínez de Lunak bere ibilbide luzean ereindako haziak fruitu ugari ematen jarraitzeko desioa agertu du.

Alor ezberdinetako (kultura, elkarte, hezkuntza eta instituzio) hainbat pertsona ezagun izan dira Gasteizko Ignacio Aldecoa Kultur Etxean, besteak beste, Bingen Zupiria Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, Irma Basterra Arabako Batzar Nagusietako lehendakaria, Jone Berriozabal Erakundeekiko Harremanetarako diputatua, Gorka Urtaran Gizarte Politiketarako diputatua eta Beatriz Artolazabal alkateordea.

Halaber, ekitaldian proiektatu den ikus-entzunezko baten bidez, euskalgintzako erakundeetako kide askok sariduna zoriondu dute: Bat Aldizkaria (Estibaliz Amorrortu), Soziolinguistika Klusterra (Olatz Altuna, Imanol Larrea, Belén Uranga, Asier Basurto, Olatz Bengoetxea, Maialen Iñarra, Paula Laita, Isabel Godinez, Pablo Suberbiola), EHUKo Gabriel Aresti Katedra eta Jakin Aldizkaria (Patxi Juaristi), Euskaltzaindia (Roberto González de Viñaspre), Gasteizko GEU Elkartea, EHU (Gidor Bilbao), Lazarraga Elkartea (Iñaki Lazkano), Mintza Lasai (Oihana Zamponi eta Uhaina Azpeitia), Topagunea (Jasone Mendizabal eta Irati Iciar), Tokikom (Iban Arantzabal, Mikel Irizar), UEU (Ane Sarasua) eta Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria 2023ko edizioaren irabazle Beñat Garaio.

Ekitaldia sarituaren gertuko lagunen dantza-emanaldi batekin amaitu da. Irteeran, bertaratutakoei Iñaki Martínez de Luna jaunaren biografia eta bibliografia biltzen duen liburua eman zaie, Eusko Ikaskuntzaren “Manuel Lekuona Saria” bildumaren 40. alea dena.

NOTA INFORMATIVA

Iñaki Martínez de Luna recibe el Premio Manuel Lekuona 2023 de Eusko Ikaskuntza

- *La Presidenta de Eusko Ikaskuntza y el Diputado General de Álava coinciden en destacar su importante aportación a la revitalización del euskera en el territorio alavés*
- *El sociólogo y sociolingüista ha señalado la necesidad de relanzar la lengua con estrategias que tomen en cuenta la globalización, las migraciones o el ámbito digital*

Vitoria-Gasteiz, 11 de abril de 2024. Este jueves, 11 de abril, la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa de Vitoria-Gasteiz ha sido escenario de la entrega del Premio Manuel Lekuona de Eusko Ikaskuntza en su edición de 2023 al sociólogo y sociolingüista alavés Iñaki Martínez de Luna.

El Diputado General de Álava, Ramiro González, y la Presidenta de Eusko Ikaskuntza, Ana Urkiza, han tomado la palabra después de que Abel Ariznabarreta, Presidente de la Fundación José Miguel de Barandiaran, haya dado lectura al fallo del Jurado. El acto ha estado conducido por la periodista Edurne Begiristain.

En su intervención, Ana Urkiza ha hecho el retrato humano e intelectual de Iñaki Martínez de Luna a través de cinco facetas: su compromiso con la lengua vasca, la vocación innovadora que atraviesa toda su trayectoria, las principales realizaciones como promotor de entidades y de proyectos, su labor profesional como sociólogo adscrito al Gobierno Vasco desde 1982 hasta su jubilación, y la docencia durante más de un cuarto de siglo en la UPV/EHU. Y resumiendo los méritos que acreditan a Iñaki Martínez de Luna como Premio Manuel Lekuona 2023 le ha definido así: “Un intelectual de mirada amplia y con una concepción integral del hecho lingüístico. Uno de los principales actores de la sociolingüística vasca actual como teórico y como investigador. Un líder y un impulsor de la lengua. Y, con todo, un valioso referente para cuantos trabajamos por el progreso social, científico y cultural de Euskal Herria”.

Tras recibir la escultura de Remigio Mendiburu que materializa el Premio Manuel Lekuona, Iñaki Martínez de Luna ha agradecido emotivamente este reconocimiento. Ha evocado su infancia castellanoparlante en Vitoria y cómo descubrió y aprendió euskera en su juventud, en los años setenta del pasado siglo, un momento de resurgimiento de la lengua por impulso popular primero y por el institucional más tarde. En la actualidad, las nuevas condiciones sociales obligan a analizar su situación para relanzarlo con estrategias

que tomen en cuenta los principales retos de nuestra sociedad como pueden ser la globalización, las migraciones o el ámbito digital. Activar y difundir la adhesión de la sociedad al euskera es tarea fundamental con la que Iñaki Martínez Luna ha renovado su compromiso.

Por último, el Diputado General de Álava, Ramiro González, ha incidido en la aportación de Iñaki Martínez de Luna a la revitalización del euskera en territorio alavés, donde su comprensión y uso ha pasado del 4% en 1980 a más del 50% en la actualidad. Ha descrito al premiado como “un apasionado de la cultura vasca”, que con mirada amplia y profunda sobre la realidad ha desarrollado un trabajo silencioso, humilde y constante desde el respeto y siempre en positivo. Personalmente, Ramiro González ha agradecido su participación durante dieciséis años en el Consejo Asesor de Euskera de la Diputación Foral de Álava. Y ha hecho votos por que la semilla sembrada por Martínez de Luna en su dilatada trayectoria siga dando abundantes frutos.

Diversas personalidades del mundo cultural, asociativo, académico e institucional han estado presentes en la Casa de Cultura Ignacio Aldecoa de Vitoria-Gasteiz, como el consejero de Cultura y Política Lingüística Bingen Zupiria, la presidenta de las Juntas Generales de Álava Irma Basterra, la diputada de Relaciones Institucionales Jone Berriozabal, el diputado de Políticas Sociales Gorka Urtaran o la teniente de alcaldesa Beatriz Artolazabal, entre otras.

Asimismo, a través de un audiovisual que se ha proyectado durante la ceremonia, personas pertenecientes a entidades de la euskalgintza han felicitado al premiado: Bat Aldizkaria (Estibaliz Amorrortu), Clúster de Sociolingüística (Olatz Altuna, Imanol Larrea, Belén Uranga, Asier Basurto, Olatz Bengoetxea, Maialen Iñarra, Paula Laita, Isabel Godinez, Pablo Suberbiola), Cátedra Gabriel Aresti, UPV/EHU y Jakin Aldizkaria (Patxi Juaristi), Euskaltzaindia (Roberto González de Viñaspre), Gasteizko GEU Elkartea, UPV/EHU (Gidor Bilbao), Lazarraga Elkartea (Iñaki Lazkano), Mintza Lasai (Oihana Zamponi y Uhaina Azpeitia), Topagunea (Jasone Mendizabal e Irati Iciar), Tokikom (Iban Arantzabal, Mikel Irizar), y UEU (Ane Sarasua), además del premio Eusko Ikaskuntza- LABORAL Kutxa Gazte Saria 2023 Beñat Garaio.

El acto ha finalizado con un espectáculo de danza por parte de las amistades cercanas al premiado. A la salida, el público asistente ha sido obsequiado con la biografía y bibliografía de Iñaki Martínez de Luna, libro que hace el número 40 de la colección “Premio Manuel Lekuona” de Eusko Ikaskuntza.